

## AURKEZPENA

Ikaslearen bizia ez da gauza erraza, etxetik eskolara eta eskolatik etxera, ikasten, memorizatzen, mekanizatzen, eta “dakiten guztia” azterketetan idazten. Normala denez, munduan zehar denetariko irakasle eta ikasle daude, irakasle guztiak ez dute berdin azaltzen eta ikasle guztiak ez dute ulermen maila berbera...

“Nondik ikasi behar dut?” “Nondik atera ditzaket nire apuntek?” “Non argitu ditzaket nire zalantzak irakasleak ez badit erantzuten?” Ikasle garenaz gero galdera hauek askotan suertatu zaizkigu azterketak prestatzean, eta askotan erantzunik topatu ez dugunez erantzuna guk geuk sortzea erabaki dugu.



Gainera, honek oraindik zentzu handiagoa dauka orain bizi ditugun garai hauetan, askotan online klaseak jasotzen ditugulako eta denok dakigun bezala hauek ez direlako aurrez-aurreko klaseak bezain eraginkorrak, horregatik, askoz ere erabilgarriagoa suertatzen da gurea bezalako plataforma bat, askorentzat oso sostengu garrantzitsua izan daitekeena. Beste hitzetan, garai berri hauekin sortu den behar bat asetzen laguntzea da gure helburua.



Horregatik “NoteScope” sortzea erabaki dugu, aplikazio bat non jendeak bere apunteak bidali ditzakeen eta besteenak deskargatu. Izenak esaten duen bezala, gure ideia apunte hoberenak lortzea da (Note = apunteak, Scope = apuntatzea)., horrela ikasleen lan karga gutxiarazteko eta nota hobekoak lortzen laguntzeko

Gure aplikazioa, “NoteScope”, ikasleentzako oso tresna erabilgarria izango da. Honekin apunteak beraien artean banatu ahal izango dituzte, edozein adin, eskola edota lekutan daudela (Espainia edo Latin Amerikan betiere). Honek ikasleen arteko harremanak hobetu ditzake eta beste adin edota lekutako ikasleak ezagutzea ahalbidetu.